BIZKAIBIZI ZERBITZUAREN ZEHAZTAPENAK ETA BALDINTZAK

Bizkaibizi zerbitzuaren zehaztapen eta baldintza hauen oinarria da Bizkaiko Foru Aldundiaren irailaren 7ko 140/2023 Foru Dekretua, zeinaren bidez ezartzen baita «BizkaiBizi» zerbitzu publikoa eskuratzeko eta erabiltzeko erregelamendua (2023ko irailaren 8ko BAOa, 173. zk.)

Oro har, Bizkaibizi zerbitzua eskuratzeko eta erabiltzeko, eskatzaileak adierazi behar du 140/2023 Foru Dekretuan xedatutakoa osorik eta inolako erreserbarik gabe onartzen duela. Esteka honetan kontsulta daiteke arau horren testu osoa: https://www.bizkaibizi.eus/eu/baldintzak/.

Halaber, zerbitzua kudeatzen duen erakundeak deklaratutako datuak eta aurkeztutako dokumentazioa kontsultatuko ditu, administrazio publikoen datuak trukatzeko eta elkarreragingarritasunerako sistemen bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren Elkarreragingarritasunerako Ataria barne, interesduna aurka ez badago behintzat. Eskatzaileak kontsulta horien aurka egiteko eskubidea baliatu ahal izango du, dagokion egiaztagiriak info@bizkaibizi.eus helbide elektronikoaren bidez aurkeztuta. Kasu horretan, alta ez da aktibatuko Bizkaibizi zerbitzuak aurkeztutako dokumentazioa berrikusi eta baliozkotu arte.

Halako egiaztapenak zerbitzua eskuratzeko eskatutako betekizunak betetzen direla ziurtatzeko baino ez dira egingo, kontuan harturik zer xedatzen duen 28. artikuluan Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak.